

JAGOLETZA PARTEKATUARI BURUZKO AGERRALDIA

Nafarroako Parlamentuko
Mahaiak 2010eko urriaren 18ko
Erabakiaz eskatua



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

JAGOLETZA PARTEKATUARI BURUZKO
AGERRALDIA

Nafarroako Parlamentuko
Mahaia 2010eko urriaren 18ko
Erabakiaz eskatua



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

AURKIBIDEA

SARRERA	7
I. Araupetzea Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioan sartzea eta hobekuntza teknikoak.	9
II. Araupetze berriak zein printzipiori erantzun beharko liokeen.	11
III. Hausturaren aurretiko itunak.	13
IV. Familia-bitartekaritza.	15
V. Zaintza eta jagoletza. Legeetako eredu eta konponbideak.	17
VI. Familiaren etxebizitza: salmenta eta erabilera esleitzea.	23
VII. Etxebizitzarekin lotutako gastuak.	27
VIII. Seme-alabei laguntza emateko gastuak.	29
IX. Bikoteak haustearen eraginak, beren kargurako seme-alabarik ez dutenean.	31
X. Desorekarengatiko konpentsazioa.	33
XI. Aldi baterako araubidea.	35
XII. Ondorioa.	37

SARRERA

Egun on

Lehenbizi, eskerrak eman nahi dizkiot Nafarroako Parlamentuari jagoletza partekatuari buru dudan iritzia emateko egin didan gonbitearengatik. Izan ere gaiak garrantzi handia du pertsona askorentzat, bereziki seme-alaba adingabeentzat.

Jagoletza Partekatuari buruzko Foru Lege proposamenak, Nafarroako Parlamentuak izapidetzeko onartu duenak, berarekin dakartzan gai batzuk azalduko ditut orain, eta, modu orokorrago eta zabalagoan, jagoletza partekatuari buruz eta harekin lotuta planteatzen diren beste alderdi batzuei buruz hitz egingen dut.

Beste ezer baino lehen, esan dezadan jagoletza partekatuaren alde nagoela, baina hori ez da oztopo hemen adierazteko Parlamentuak, hura arautzen duenean, zehaztu edo argitu beharko lituzkeen puntu batzuk.

I. Araupetzea Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioan sartzea eta hobekuntza teknikoak

- 1.** Lehenbizi, nire ustez, segurtasun juridikoko arrazoiengatik, bai jagoletza partekatuaren araupetzerako, bai haren interpretazio edo aplikaziorako ere, beharrezkoa da gaia aztertu nahi duen edozein legegintza-ekimen Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioan edo Foru Berrian sartzea. Hor sartu beharko litzateke, nire ustez, Zuzenbide Zibileko gai bat delako, foru lege proposamenaren zioen azalpenean berariaz aitortzen den bezala .
- 2.** Gainera, Konpilazioko edo Foru Berriko testuan sartzeak bermatuko luke Nafarroako Parlamentuan behar den gehiengo osoak lege hori onestea, zeren eta, nire ustez, lege horrek, familietan eta adingabeengan dauzkan ondorioengatik, adostasunik handiena eskatzen baitu aplikatua izateko eta irauteko.
- 3.** Halaber, nire ustez egokiagoa izanen litzateke foru lege proposamenaren izenburua aldatzea, zeren eta haren edukia “jagoletza partekatuaz” haratago baitoa eta beren kargura seme-alabak dituzten gurasoen familia-bizikidetasunaren hausturara ere hedatzen baita. Jagoletza partekatua, garrantzitsua izanik ere, ez da gurasoen bizikidetasunaren hausturaren ondorioz sortzen den gai bakarra.
- 4.** Beharrezkoa iruditzen zait, halaber, foru lege proposamenean egon daitezkeen akats tekniko eta juridikoak zuzentzea; izan ere, foru lege proposamen horrek Nafarroara ekarri nahi izan du, aldaketarik gabe, jagoletza partekatuari buruz Aragoi onetsi den

legea. Izan ere, foru lege proposamenak Nafarroako foru zuzenbide zibilak pertsonen eta familien arloan dauzkan instituzio berekiak hartu beharko lituzke aintzat; eta, esate baterako, “familia-erantzukizunari” buruzko aipamen guztiak kendu eta “guraso ahalaz” hitz egin beharko litzateke, horixe baita Nafarroako Zuzenbidearen kontzeptu berekia; halaber, ez litzateke sartu beharko “familia-harremanei buruzko ituna” deitu dena praktika juridikoan hitzarmen arautzaileaz hitz egin denean, eta ez litzateke, ezta ere, jagoletza partekatutik bereizi beharko konpentsaziozko pentsioaren araupetzea, zeina era guztietako hausturetan gerta baitaiteke.

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Kontseilu Aholku-emaileak, otsailaren 6ko 9/2006 Foru Dekretuaren bidez sortu zenak, gaiei horiei buruzko irizpena eman du, aurtengo irailaren 14ko txosten luze eta oso batean, Jagoletza Partekatuari buruzko Foru Lege proposamenaren harira. Horretaz gainera, kontseilu horrek iritzia eman du ekimenaren egokitasunarekin eta edukiarekin lotutako beste gai batzuei buruz. Nire ustez, horiek guztiak kontuan hartu beharko lirateke.

II. Araupetze berriak zein printzipiori erantzun beharko liokeen

5. Arloari buruzko edozein arauk, nire ustez, honako printzipioak izan beharko lituzke abiapuntu:

- Lehenengoa eta lehenetsi beharrekoa, seme-alaba adingabe edo ezgaituen interesa babesteko printzipioa: seme-alabek ez dute haustura erabakitzen, baina haiek dira ukitu nagusiak eta haiek dira, halaber, botere publikoen aldetik –kasu honetan, Nafarroako Parlamentutik– babes handiena behar dutenak.
- Gurasoen arteko berdintasun-printzipioa, guraso-ahalaz baliatzeari dagokionean.
- Itunaren printzipioa: desio dena da bereizten diren gurasoen artean akordio batera iristea, seme-alabei eta familia-harremanei buruzko guztian, guraso-ahalak berezko duen berdintasun horretatik abiatuta.
- Aitaren eta amaren arteko bitartekaritza boluntario eta efektiboa haien gatazkei konponbidea emateko. Nafarroako Foru Komunitateak Familia Bitartekaritzako zerbitzu publiko bat jarriko du haien eskura.
- Epailen esku-hartzea: a) akordioak balioesteko, halakorik dagoenean, eta haien betetzea ziurtatzeko; eta b) akordiorik ez badago, adingabearen lehentasunezko interesa ziurtatzeko eta, kasua bada, eta beharrezkoa denean, desoreka ekonomikoarengatik edo bestearen ekintza ez-legitimoen ondorioz babes

gutxien duen ezkontidearen edo bikotekidearen interesa ziurtatzeko. Akordiorik ez badago, legegileak errespetatu beharko luke epaileak seme-alabentzat eta familia-harreman berrietarako onenentzat jotzen dituen erabakiak hartzeko daukan autonomia, kasuan kasukoa.

6. Gurasoak dira onartu behar dutenak beraiei dagokiela, eskubide eta betebeharrak berdinetatik abiatuta, konponbidea ematea familia-harremanetan sortzen diren arazoei; eta, hain zuzen ere, hori egitea dagokiela beraien artean, beraientatik eta beraien seme-alaben alde. Desadostasuna dagoen kasuetan, familia-gatazkei buruzko edozein konponbide judizialek, termino juridikoen arabera izanda ere, gurasoen aipaturako betebeharrak porrot egitearen ondorioa da, eta, horrenbestez, ez a priori ez a posteriori, ezin zaio epaile bati inongo errurik bota hartzen dituen erabakiengatik, azken finean gurasoak izan baitira epaileari erabaki horiek harrarazi dizkietenak.

Baldin eta, adostasunik lortu ez dutelako, gurasoek epailearengana jotzen badute, jakin behar dute harexen eskuetan uzten dutela –legeak egiteko hori esleitzen baitio– beren arteko desadostasunen ebazpena, legeak modu objektibo eta orokorrean ezartzen dituen irizpideei jarraituz.

III. Hausturaren aurretiko itunak

7. Hain zuzen ere gurasoak direlako familia-harremanen eta beren seme-alabekiko betebeharren lehenengo arduradunak, foru lege proposamenean aitortu beharra dago aukera eman behar dela hausturaren ondorioz sorturiko familia-harreman berriei buruzko itunak egin daitezzen, haustura hori geratu AURRETIK eta hura AURREKUSI NAHIAN. Itun horiek eskritura publiko batean jaso beharko lirateke (Nafarroan, besteak beste, ezkontza-kapitulazioak edo ermandadeko testamentu eta abar jasotzen diren bezala). Halaber, modua eman beharko litzateke gurasoek aurretik, hausturarik iristeko balizko kasu baterako, familia-bitartekaritza derrigorrezko gisa itun dezaten.

IV. Familia-bitartekaritza

- 8.** Familia-bitartekaritzak egiteko handia du hausturaren ondorengo familia-harremanak bideratzeko eta gatazkak saihesteko. Hain zuzen ere, gurasoen arteko akordioa babeste aldera, onesten den legeak xehetasun guztiekin arautu beharko luke familia-bitartekaritza eta, gutxienez, ere hiru neurri garrantzitsu bildu beharko lituzke:
- a) Familia-bitartekaritza boluntarioa jasotzea.
 - b) Nafarroako Gobernuari gaikuntza ematea hiru hilabeteko epean familia bitartekaritzako zerbitzu bat, doakoa eta inpartziala, sor dezan, bi gurasoentzat, bertara jo ahal dezaten beren desadostasunak ebaztera.
 - c) Epaileari baimena ematea familia-bitartekaritzako zerbitzu horretara jo dezan familia-bitartekaritza hori proposatzen duenean, eta gurasoak bitartekaritzari buruzko informazio-saio batera joanaraz ditzan, haien arteko akordioa posiblea dela irizten duenean.
- 9.** Juridikoki, ezin da nahitaezko gisa ezarri justiziara jo aurreko bitartekaritza, aldeek aurretik hura hitzartu ez badute, zeren eta litekeena baita hori babes judizial eraginkorrerako konstituzio-eskubidearen aurkakoa izatea. Hala eta guztiz ere, familia-bitartekaritza indartu beharko litzateke gutxienez ere aipatu berri ditudan hiru neurrien bitartez.

V. Zaintza eta jagoletza.

Legeetako eredu eta konponbideak

10. Zaintza eta jagoletza guraso-ahala osatzen duten ahalmenak dira. Horietan, oro har, bi mota bereiz daitezke:

a) Jagoletza banakakoa edo guraso bakarrarena: hartan, seme-alaba adingabeen zaintza eta jagoletza gurasoetatik bakarraren eskuetan uzten dira.

b) Jagoletza partekatua, non bi gurasoek beren gain hartzen duten eta erantzukizunez betetzen duten seme-alaba adingabeen zaintza eta jagoletza.

11. Familia zehatz bakoitzarentzat bi zaintza eta jagoletza motetatik zein hautatu behar den ebazteko erabakia, oro har, gurasoek hartu behar dute. Beraiek dira, izan ere, beren kabuz edo familia-bitartekaritzaren laguntzarekin, erabaki behar dutenak jagoletza partekatua ala jagoletza banakakoa nahi duten etorkizunerako konponbide gisa, eta epaileak haien erabakia errespetatu beharko du, beste erabaki bat ezarri beharrean.

Hau da, aldeen arteko itunen esparruan, beti desio izaten direnak, bi aukerak (jagoletza partekatua eta jagoletza banakakoa) berdin ageri dira, eta gurasoak dira baten alde nahiz bestearen alde egiten dutenak, elkarrekin iritsi dituzten akordioen arabera.

12. Akordiorik ezean, eta konponbidea epailearen esku uzten bada, hiru aukera daude legearen arabera:

Lehenengo aukera: Kode Zibilaren 92. artikuluan gaur egun jasota dagoen araupetzeak Ministerio Fiskalaren txostena eskatzen du gurasoak akordio batera iristearen ondoriozko jagoletza partekaturako. Gurasoen arteko akordiorik ez badago, legeak jotzen du jagoletza partekatuari buruzko erabakia aparteko kasuetan baizik ezin izanen dela hartu, Ministerio Fiskalaren aldeko txostena eskatzen du eta, orobat, oinarri judiziala eskatzen du hain zuzen ere egiaztatzeko “soilik modu horretara babesten dela modu egokian adingabearen interes gorena”. Hau da, Kode Zibilaren arabera, gurasoen artean akordiorik ez badago, jagoletza partekatua aparteko egoera bat da, adingabearen intereserako bestea bezain gomendagarria ez dena.

Bigarren aukera: Jagoletza partekatua lehenestea, jagoletza banakakoa “salbuespen” baten gisara utzita. Legegile aragoiarraren aukera da, eta ez hain modu nabarmenean baina emaitzaren ikuspuntutik maila berdinean, legegile katalanarena. Beste foru legedia batzuetan ere konponbide hori lantzen ari dira; esate baterako Valentziako Erkidegoan (printzipio orokor gisa aipatzen du jagoletza partekatua) eta Euskadiko lurralde historikoetan. Baieztatzen da, halaber, Frantziako, Kanadako edo Italiako legedietan ere jagoletza partekatuko ereduaren alde egiten dutela. Sistema horretan, akordiorik ezean, epaileak jagoletza partekatuaren alde egin beharko du (“eginen du” dio Aragoiko legeak 5.2 artikuluan, eta, horrenbestez, legezko betebeharrak bat da), eta soilik salbuespen gisa eginen da jagoletza banakakoaren alde, komenigarria bera dela ulertzen denean, betiere kontuan izanda guraso bakoitzak familia-harremanei buruz

aurkeztu behar duen proposamena eta honako faktoreei begiratuta: seme-alaben adina, gizarte- eta familia-errotzea eta gurasoen iritzia, gurasoen gaitasuna eta borondatea, gurasoek familia eta lana uztartzeko dauzkaten aukerak eta bizikidetasunaren araubiderako garrantzi berezia izan dezakeen beste edozein inguruabar. Jagoletza partekatua lehenesteak honako ideiak dauzka abiapuntu: a) bizikidetasuna hautsi aurretik, guraso-ahala eta ahalmenak berdinak dira bi ezkontideentzat; b) hausturak ez du bizikidetasuna nahastu behar; eta c) hausturaren ondoren, guraso-ahalak berdina izan behar du bi gurasoentzat.

Hirugarren aukera: Jagoletza partekatuaren eta jagoletza banakakoaren arteko berdintasuna, konponbide orokor gisa, eta epailea izatea, gurasoen arteko akordiorik ez badago, bi zaintza eta jagoletza sistemen arteko bat erabakiko duena, betiere aurkezten zaion kasu zehatz bakoitzaren inguruabarren arabera, betiere lehenengo adingabearen interesean pentsatuz eta, halakorik badago, babes gutxien duen ezkontidearen interesean ere pentsatuz. Sistema hori aurrekoaren antzekoa da, zeren eta jagoletza partekatuaren aldekoa baita, baina epailearen autonomia indartzen du, berak erabaki ahal dezan kasuan kasu onenentzat jotzen duen konponbidea, gurasoen arteko akordiorik ez badago. Konponbide hori ez da a priori abiatzen inongo legezko lehentasunetik, eta emaitza erreal eta praktikoa batera iristen da ikuspuntu eta inguruabar guztien behar den azterketa arrazionala egin ondoren. Bat dator honako ideia honekin: ituna tartean dela, aldeek jagoletza sistema bat ala bestea hautatu ahalko dute, beren inguruabarrei erreparatuta. Itunik ez badago, bikotearen ordezkioak, epaileak, erabaki beharko du zein jagoletza sistema zehatz den egokiena familia bakoitzaren inguruabar horien arabera, betiere bi ezkontideei eta seme-alabei entzunda eta zenbait irizpide objektibori jarraituz.

Bada, Nafarroako Parlamentuak amaieran onesten duen araubidean hiru aukera horietatik (aparteko jagoletza partekatua, lehentasunezko jagoletza partekatua eta kasu bakoitzari egokitutako jagoletza partekatua) zein egonen den zehaztea, logikoa den bezala, legebiltzarrari, gehiengo osoz erabaki behar baitu, betiere konponbide bat zein bestea hobea dela jota.

Hala eta guztiz ere, egokia iruditzen zait honako zehaztapenak egitea:

Ez zait oso egokia iruditzen Kode Zibil indardunaren egungo araupetzea, zeinak jagoletza partekatua aparteko aukera baten gisara hartzen baitu, adingabearen interesarentzat kaltegarria balitz bezala. Aldi berean, gainera, gai horretan halako beto eskubide bat aitortzen dio Ministerio Fiskalari. Jagoletza partekatua ez da, berez, gaitz bat: aldeek beren borondatearen arabera ezartzeko aukera izan behar duten sistema bat da eta botere publikoek (legegileak eta judizialak) onartu egin behar dute, askatasun zibilaren printzipioaren arabera hura zalantzan jarri gabe.

Baieztaatu ohi da Aragoiko konponbideak jagoletza partekatua ezarri egiten duela, baina autonomia erkidego horren legegintzazko konponbideak ez du jagoletza partekatua automatikoki ezartzen, nahiz eta aldarrikatzen duen bera dela epailearentzako lehentasunezko aukera. Hau da, ezerk ere ez dio eragozten epaileari jagoletza banakakoaren alde egitea, kasuan kasu gertatzen diren inguruabarrei erreparatuta. Hori bai, aitortu beharra dago arau-konponbide horrek ahaleginak egiten dituela, nolabait ere, epailearen erabakia mugatzeko kasu zehatzaren aurrean, eta hura

baldintzatu nahi duela jagoletza partekatuaren alde egin dezan, konponbide onenaren gisa hartzen duen printzipio orokor bat abiapuntu hartuta; eta jagoletza banakakoaren alde, berriz, soilik justifikatutako kasuetan egin dezan. Araupetze horretan, legegilea da premisa bat a priori erabakitzen duena: jagoletza partekatuaren sistema, sakonean, “ona” da eta jagoletza banakakoarena ez da hain ona, eta soilik bigarren mailako edo aparteko kasuetarako konponbide bat izan daiteke.

Legezko hirugarren aukerak, tartekoak, epailearen eskuetan uzten du, kasuan kasu, gurasoek lortu ez duten erabakia. Ez du a priori ezartzen “on” edo “txar” gisa jagoletzaren inongo eredu, eta ez du bietako bakar baten alde lehentasunez egiten: epaileak kasuan kasuko erabakia hartu beharko du “familia bakoitzaren” inguruabarren arabera eta gurasoei eta seme-alabei entzunda, betiere jokoan diren interes pertsonal guztiak uztartzeko ahalegina eginez. Honen azpian dagoen ideia da epailea dela familiarentzako konponbiderik onena erabakitzen duena, ikusita gurasoak ez direla gai izan, haietatik hori espero bazen ere, itundutako konponbide batera iristeko, bitartekaritzarekin nahiz bitartekaritzarik gabe. Horrenbestez, aldeak gai izan ez badira akordio batera iristeko, legegileak ere ez lioke epaileari konponbide orokor bat ezarri beharko, edo ez lioke aukera jakin bat adierazi beharko, gurasoak konponbide horretara iritsi ez badira.

Nire ustez azkeneko konponbide hori da hobekien ezkonduko litzatekeena gure Foru Zuzenbide Zibilararekin: aldeen arteko akordioa eta, halakorik ez badago, epailearen bitartekaritza, aldeei entzunda, haien interesak etorerraraziz eta kasuan kasuko

inguruabarrei erreparatuta. Eskema hori jada Konpilazioko 63. legean ageri da, non jada guraso-ahala arautzen baita. Halere, lege horretako azken lerrokada aldatu beharko litzateke, balizko konponbide judizialen artean jagoletza partekatuarena sartzeko, hain zuzen.

VI. Familiaren etxebizitza: salmenta eta erabilera esleitzea

13. Nire ustez, beharrezkoa da, baita ere, araupetze askoz zehatzagoa egitea familiaren etxebizitzaren erabilerari buruz. Hausturaren puntu garrantzitsuenetako eta gatazkatsuenetako bat da.

Batzuek gomendatzen dute ezen, gurasoak akordio batera iristen ez badira, konponbiderik onena ez dela erabilera esleitzea, baizik eta etxebizitza saltzea. Salmenta hori epaileak erabaki beharko luke, nahitaez, aldeetako batek eskatzen baldin badio.

Konponbide hori izaera orokorrarekin eta itunik ez dagoenean ezartzea, muturreko samarra iruditzen zait, arlo juridikoari hertsiki erreparatuta. Esan izan da, baita ere, nahitaezko besterentze hori ezartzea Konstituzioaren aurkakoa izan daitekeela, epaileari jabetza pribatuko etxebizitza bat saltzeko erabakia ezartzen baitzaio, bi jabeekideek salmenta hori egitea erabaki ez badute ere.

Hala eta guztiz ere, nire ustez, hain muturrekoak izan gabe, ez litzateke baztertu beharko legeak epaileari gaikuntza edo ahalmena ematea, eta etxebizitzaren salmenta ez inposatzea (dirudienez Aragoiko legeak egiten duen bezala, salbuespen batzuk onartzen baditu ere) akordiorik ezean aplikatu beharreko neurri judizial gisa, inguruabar batzuk gertatzen direnean; besteak beste:

- Etxebizitza bi gurasoena izatea;
- bietako batek eskatzea;
- beste ezkontideari eta seme-alabei entzutea;
- epaileak seme-alaba adingabeen interesetarako kalterik ez atzematea;
- epaileak gaindiezinezko zailtasun objektiborik ez atzematea guraso bakoitza etxebizitza eskuratu ahal izateko.

Halaber, uste dut baimena eman beharko litzaiokeela epaileari etxebizitza osoa adjudikatzeko hura tasazio judizialaren arabera onartzen duen jabekideari, besteari kasuko konpentsazioa ordaintzeko suspentsio-baldintzarekin; hori guztia, pro indiviso komunitatearen zatigarritasuna arautzen duen Foru Berriko 374 Legearen arabera.

14. Familiaren etxebizitzaren salmenta eskatzen ez bada, familiaren etxebizitzaren erabilera esleitzeko arauak honakoak izan litezke.

Erabilera esleitu beharko litzateke, nire iritziz aldeek propio egindako izapide batean adosten dutenaren arabera. Ez da kontraesan bat. Gurasoek jagoletza partekatuari buruzko akordiorik ez lortzeak ez du esan nahi, epaileak hura erabaki ondoren, gauza izanen ez direnik etxebizitzaren erabilera –partekatua nahiz banakakoa– erabakitzeko. Horretarako, epaileak behar den izapidea zabaldu beharko luke.

Eta jabeek etxebizitzaren erabilerari buruzko akordiorik lortzen ez badute, epaileari egokituko litzaioke hura erabakitzea seme-alabentzako eta familia-harremanetarako interes onenari erreparatuta, kontuan izanda, gainera, modu objektiboan, guraso bakoitzak etxebizitza eskuratzeko dauzkan zailtasunak.

- 15.** Familiaren etxebizitzaren erabilera gurasoetako bati esleituz gero, esleipen horrek egun daukan aldi baterako izaera eduki beharko luke. Gurasoen arteko adostasunik ez badago, epaileak finkatu beharko luke aldi hori. Epea luzagarria izanen litzateke, aldi baterako betiere, eta luzapena ezarritako epea amaitu aurretik eskatu beharko litzateke, adibidez Kode Zibil katalanak ezartzen duen bezala.

VII. Etxebizitzarekin lotutako gastuak

16. Era berean, uste dut etxebizitzarekin lotutako gastuak zehazkiago arautu beharko liratekeela, aldeek adostasunik lortu ez badute eta gatazkak saihesteko. Esate baterako:

- Familiaren etxebizitza erosi edo hobetzeko hartutako obligazioak ordaindu beharko lirateke obligazio horiek eratzeko tituluan ezarritakoaren arabera, logikoa den bezala. Kode Zibil katalanak horixe ezartzen du.
- Jagoletza partekatuaren kasuan, familiaren etxebizitza bi gurasoek erabiltzen badute, etxebizitza erosteko edo hobetzeko arestian aipatutako gastuez gainerako guztiak erdibana ordaindu beharko dituzte.
- Eta familiaren etxebizitzaren erabilera gurasoetako bati esleituz gero, horrexek ordaindu beharko ditu etxebizitza kontserbatzeko, mantentzeko eta konpontzeko gastuak.

17. Familiaren etxebizitza erabiltzeko eskubide hori amaitu beharko litzateke honako arrazoiengatik: itundutako arrazoiengatik, seme-alaben jagoletza amaitu delako; erabileraren onuradunaren egoera ekonomikoa hobetu delako; erabileraren onuraduna beste pertsona batekin ezkontzeagatik edo bikote egonkorra osatzeagatik, eta ezarri zen epea amaitzeagatik.

VIII. Seme-alabei laguntza emateko gastuak

18. Arazo-iturri bat iruditzen zait, halaber, zehaztasunez arautzea seme-alaben laguntzak eskatzen dituen gastuan, aldeen arteko akordiorik ez badago. Arlo hori kasuistika ugarikoa eta egunean egunekoa da, eta hemen, foru lege proposamenean aipatzen diren arauz haratago, eman beharreko ukitu batzuekin, ez dut uste konponbide magikorik dagoenik.

Printzipio gisa, nire ustez arauan sartu beharko litzateke gastuak ordaintzerakoan proportzionaltasunaren printzipioari eutsi beharko zaiola, betiere guraso bakoitzaren baliabideen arabera; halaber, kontuan hartu beharko litzateke zenbait gastu handiren aldizkakotasuna eta gastua behar ez diren aparteko gastuak egitea erabakitzen duenari kargatzearen araua.

IX. Bikoteak haustearen eraginak, beren kargurako seme-alabarik ez dutenean

19. Halaber proposatuko nuke ezen, Nafarroako Parlamentuak beren kargura seme-alabak dituzten bikoteen familia-bizikidetasunaren haustura arautzen duenean, orobat arautu beharko lukeela seme-alabarik beren kargura ez duten bikoteen borondatezko desegitea, zeren eta horrekin jagoletza partekatuz eta seme-alabak dituztenen hausturaren eraginez haratago joanen balitzateke. Horrela, Nafarroak modu osoago batez eta anbizio handiagoz ekinen lioke ezkontza-lotura desegitearen gaiari, halako moduz non Konpilazioak familia-bizikidetasunaren desegitearen edo hausturaren eragin guztiak jasoko balituzke, tartean seme-alabarik DAGOENEAN eta EZ DAGOENEAN.

Hala egiten ez badu, ez da ongi ulertuko zergatik Foru Komunitateak arautzen duen seme-alabak beren kargura dituztenen familia-bizikidetasunaren haustura eta ez duen, ordea, arautzen seme-alabarik ez duten bikoteen familia-bizikidetasunaren haustura arautzen. Hala egiten ez badu, paradoxa bat gertatuko litzateke, zeren eta egoera bat Foru Berriaren eraginen menpe geratzen den bitartean, bestea oraindik ere Kode Zibilaren eraginen menpe geratuko baita. Hori, izan ere, ez da oso kongruentea legegintzaren ikuspuntutik, eta, gainera, segurtasun juridikorik ezeko arazoak eta interpretazio-zailtasunak eraginen lituzke.

Alabaina, ez nintzateke seme-alabarik beren kargura ez dituzten bikote egonkorren haustura arautzearen aldekoa, zeren eta jada berariaz jasota baitago hori Bikote Egonkorren Berdintasun Juridikoari buruzko 6/2000 Foru Legean.

X. Desorekarengatiko konpentsazioa

20. Halaber, proposatuko nuke ezen seme-alabak dituzten bikoteen haustura bereiz eta modu independentean arautzen duen kasuko foru legeak arautu beharko lukeela, orobat, ezkontide batengan edo bikote egonkorreko kide batengan bestearekiko gerta daitekeen desoreka ekonomikoa. Horixe da bikoteko kide ohi batek besteari egun eman beharreko “konpentsaziozko pentsioa”. Nabarmena den bezala, desoreka ekonomikoarengatiko konpentsazioa bikote bateko ezkontideengan edo kideengan eragina duen zerbait da, seme-alabarik izan nahiz ez izan. Hori dela eta, jagoletza partekatuarenaz beste puntu bat da, eta titulu bereiz bat eskatzen du.

Nire ustez, aukera egon beharko litzateke konpentsazio hori bikotekideek edo ezkontideek ituntzeko, bai hausturaren aurretik, bai hura arautzeko hitzarmenean. Akordiorik ezean, Familia Bitartekaritzaren Zerbitzura eta epailearengana jo liteke, ordainketaren zenbatekoa eta baldintzak erabaki ditzan.

Juridikoki eta gaur egun jada existitzen diren bi araupetzeak abiapuntu hartuta, araubidea aldatu beharko litzateke, ezkonduetako bikote baten aurrean egon ala bikote egonkor baten aurrean egon. Gaur egun, lehenengoa Kode Zibilak arautzen du; bigarrena, ordea, Bikote Egonkorren Berdintasun Juridikoari buruzko 6/2000 Foru Legeak arautzen du. Bikoiztasun horri eutsiz gero –zeina konstituzioaren

aurkakoa ez baita—, Nafarroan 6/2000 Foru Legea eta Foru Berria izanen lirateke aplikatzekoak, lehenengoa bikote egonkorren kasuan eta bigarrena ezkontutako bikoteen kasuan.

Ezkontutako bikoteentzat, konpentsazioak, akordiorik ezean, oro har, aldi baterakoa izan beharko luke, eta soilik aparteko kasuetan izan beharko luke bizi osorakoa. Are gehiago, uste dut Nafarroako Parlamentuak aztertu egin beharko lukeela konpentsazio horren izaera guztiz pertsonala, erabakitzeke ea oinordekoei edo alargunari transmititzeko izan behar duen, baldin eta zorduna hiltzen bada, horrek ekar litzakeen paradoxekin ere.

21. Bidenabar, nire ustez, Konpilazioak ezkontza deusezaren gatiko kalte-ordaina jaso beharko luke, halako moduz non ezkontza deuseza deklaratzeko den kasuetan, fede oneko ezkontideak aitortua edukiko luke kalte-ordain baterako eskubidea, baldin eta ezkontza-bizikidetasunik egon ez bada. Kalte-ordaina desoreka ekonomikoaren gatiko konpentsaziorako ezarritako irizpide berrien arabera kalkulatu litzateke. Horrela, kasu horren araupetzea ez litzateke jada Nafarroan izanen Kode Zibilaren gaia, baizik eta Foru Berriarena, eta zenbatekoa kalkulatzeko aplikatu beharreko irizpideak konpentsazio ekonomikoaren gairako ezarritako egokienak izanen lirateke.

XI. Aldi baterako araubidea

22. Azkenik, arau berriaren aldi baterako araubidearen gaia zabaltzen da.

Aldi baterako araubide bat ezarri beharko ote litzateke bere garaian jagoletza partekatua aitortu ez zitzaienentzat, hura eskatu ahal dezaten? Egokia izanen ote da lehengo egoerak dauden horretan uztea?

Nire ustez, baldin eta Parlamentuak erabakitzen badu jagoletza partekatuaren aldeko lehentasunezko konponbide bat nahiz bi jagoletza moten arteko berdintasunaren aldeko konponbide bat, aldi baterako konponbide bat eman beharko litzateke, bere garaian, jagoletza partekatua aparteko konponbidetzat hartzen zenean, halakorik lortu ez zutenek hura eskatu ahal dezaten.

Zein epe ezarri beharko litzateke jagoletzaren aldaketa eskatu ahal izateko? Aragoiko legeak urtebete ezartzen du jagoletza “eskatu” ahal izateko, eta epaileen bizkar uzten du demandak ebazteko beharko den epea.

Argi dago lege-arazo gaindiezinik ez dagoela legeak indarra hartzen duenetik aurrerako epe hori luzatzeko, hain zuzen ere guraso bakarraren jagoletza dutenek lehentasunezko jagoletza partekatua eskatu eta hartara bildu ahal izateko. Puntu honetan, oso aintzat hartu beharko litzateke familiako epaileek arlo prozesalari buruz daukaten iritzia.

XII. Ondorioa

23. Azken batean, uste dut ezen Nafarroako Parlamentuaren edozein legekonponbidek, Kode Zibiletik bereizten denak, honako alderdiak bete beharko lituzkeela:

- Foru Berriaren osotasuna eta ekimenaren kalitate teknikoa ziurtatzea, herritarrek segurtasun juridiko handiagoa izan dezaten.
- Seme-alaba adingabeen interesa babestearen printzipioari erantzutea, gurasoek haiekiko harremanetan daukaten berdintasuna abiapuntu hartuta.
- Oro har, gatazkak ebazteko konfiantza ezkontideen edo bikotekideen erantzukizunean eta haien arteko akordioan oinarritzea, haustura baino lehen nahiz haustura eta gero.
- Familia-bitartekaritza indartzea, zerbitzu publiko gisa, gurasoen artean desio izatekoa den akordioa errazteko.
- Eta, azkenik, gurasoen arteko akordiorik ez badago, epailearen esku uztea erabaki egokiena hartzeko ardura, betiere lehenengo faktore gisa seme-alaba adingabeen interesaren babesa bilatuz, bai eta, beharrezkoa denean, hausturarengatik objektiboki kalte handiena paira dezakeen ezkontidearen babesa ere. Itunik ezean, epaileak izan beharko du, bere autonomiaz baliatuta, jagoletzaren modalitate

baten eta bestearen artean erabakiko duena, gurasoek egiten dizkioten eskariak ikusita, guraso horiei eta seme-alabei beti entzunda eta, ahal dela, haiekin batera, eta seme-alaben interesei eta kasu bakoitzean ezagutzera eman zaizkion inguruabarrei erreparatuta.

Honekin bukatuko dut. Eskerrek eman behar dizkizuet eskaini didazuen arretarengatik, eta, beti bezala, zuen esku nago, behar bezain ageri geratu ez diren alderdiak argitzeko.

Mila esker.



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa